

BILBAO RÍA 2000REN FINANTZAKETA- ESTRATEGIAREN ETA FUNTSEN ERAKARTZEAREN DEFINIZIOAN LAGUNTZA TEKNIKOA

Posted on 02/03/2026 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Analisi ekonomikoa eta finantzarioa](#), [Análisis económico y financiero](#), [Bilbao Metropolitano](#), [Bilbo Metropolitarra](#), [Proiektu estrategikoak](#), [Proyectos estratégicos](#)

NAIDER [Bilbao Ría 2000](#)ren lankide da bere finantzaketa-estrategia definitzeko eta funts publikoak, lankidetzak eta/edo partzuergoak erakartzera bideratutako proiektuak egituratzeko. 1992an sortutako sozietate publiko honek, Bilbo metropolitarrako hiri-berroneratzea eta garapen sozial eta ekonomikoa sustatzeko helburuarekin eta erakundeen arteko adostasunetik abiatuta, eraldaketa urbanoaren eta trenbide-integrazioaren arloko jarduera estrategikoak gidatzen ditu Bilbo metropolitarran.

Proiektuaren helburua da Europako, Estatuako eta autonomia-erkidegoko programetan dauden aukerak identifikatzea, erakundeak deialdi bakoitzean izan dezakeen rola aztertzea, eta bere jardun-ildoekin eta esku hartzen duen lurralde-eremuekin lerrokatutako proiektuen marko estrategiko bat definitzea.

Zerbitzua garatzeko, NAIDERrek [Afi \(Analistas Financieros Internacionales\)](#)-ko profesional adituen lankidetzak du, finantza- eta ekonomia-analisiak eta eskuragarri dauden finantzaketa-tresnen aurreko posizionamendu estrategikoa indartuz. Aliantza honek lurralde- eta hiri-ezagutza uztartzen du proiektuen finantza-egituraketan eta bideragarritasunaren ebaluazioan espezializatutako esperientziarekin.

